



**ERANSKINA**  
**UPV / EHUko IRAKASLEEK ETA IKERTZAILEEK**  
**EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA**  
**2021eko deialdia**

UPV/EHU n euskararen erabilera areagotzeko eta euskara lan-hizkuntza izan dadin bermatzearen, UPV/EHUren Euskararen III. Plan Gidariak aurreikusten du irakasle-ikertzaile orori baliabideak eskaintzea lanerako hizkuntza gaitasuna eskuratzeko ikastaroak egin ahal izan ditzaten. Ikastaro horietako batzuk UPV/EHUK dituen programen eta deialdien bidez egiten dituzte irakasleek eta ikertzaileek. Alabaina, Irakasleen eta Ikertzaileen hizkuntza-prestakuntzarako EHP-2020 planak aurreikusten du, halaber, laguntzak eskaintzea irakasleek zein ikertzaileek lantokitik kanpo eskaintzen diren ikastaroetan parte hartu ahal izan dezaten. Hori horrela, deialdi hau egiten da, 2020/21 ikasturtean zehar UPV/EHUko irakasle zein ikertzaileek egindako ikastaroak diruz laguntzearen.

Hori dela-eta, honako deialdi hau egiten da:

**OINARRIAK**

**1. DEIALDIAREN XEDEA:**

Deialdi honen xedea da **2020/21 ikasturtean zehar, hau da, 2020ko urritik 2021eko irailera arte**, euskara ikastaroak egin dituzten UPV/EHUko irakasleei eta ikertzaileei diru-laguntzak ematea. Horretarako, kontuan hartu da [2021eko uztailaren 7ko EBAZPENA](#), Habeko zuzendariarena non 2020-2021 ikasturtean HABEren euskara-mailak edo baliokideak gainditu dituzten ikasleei diru-laguntzak emateko prozedura eta baldintzak arautu eta dagokion deialdia egiten duen. Deialdi horren bitartez, euskara-maila egiaztatu duen euskara ikasleak (EAEn erroldatuta egon behar dena) berak ordaindutako matrikula kosteak bere osoan edo zati batean konpentsatu ahal izango dira, diru-laguntza handiena A1, A2, B1 eta B2 mailek dute.

Horregatik, deialdi honen bidez, bakarrik lagunduko dira diruz C1 eta C2 mailako ikastaroak: aurrez aurrekoak, jardun bikoak, barnetegikoak zein autoikaskuntzakoak

EAEn egindako ikastaroen kasuan, baldintza erantsirik gabe onartuko dira kontuan HABEK homologatutako programen bidez egindakoak. EAetik kanpo egindako ikastaroen kasuan, baldintza erantsirik gabe onartuko dira euskaltegien sareetako zentroetan edo Euskal Etxeetan egindako ikastaroak.

Onargarri izan daitezke, halaber, euskaltegietan egindako ikastaro ez-homologatuak zein bestelako hizkuntza-eskola edo akademietan hartutako ikastaroak. Kasu hauetan, ikastaro-emaeleak idatziz ziurtatu beharko du emandako ikastaroaren curriculum bat datorrela Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2015eko uztailaren 22ko aginduan C1 zein C2 mailetarako aurreikusitakoarekin.

Ez dira diruz lagunduko Hizkuntza Eskola Ofizialetan egindako ikastaroak.

2020/21 ikasturtean eskatzaileek maila bereko ikastaro bat baino gehiago egin badute, ikastaro bakarra lagunduko da diruz: garestiena. Hurrenez hurren, C1 eta C2 mailetako bi ikastaro egin badira, biak lagunduko dira diruz, baldin eta asistentzia eta aprobetxamendua egokiak izan badira, betiere, deialdian ezarritako gehienezko diru-laguntzaren mugan.

Ez dira diruz lagunduko ikaskuntza-materialen, software-lizentzien gastuak, edo bestelakoak, barnetegien kasuan izan ezik. Barnetegien kasuan, ostatatze-gastuak ere hartuko dira kontuan, baina ez bestelakoak: joan-etorriak, bisitak...

**Salbuespenez**, diru-laguntza jaso ahal izango dute, halaber, A1, A2, B1 zein B2 mailak 2020/21 ikasturtean gainditu, baina EAetik kanpo erroldatuta egoteagatik edota euskara EAEko euskaltegi saretik kanpo ikasteagatik HABEren diru-laguntza deialdira jotzerik izan ez duten UPV/EHUko kideek.



**Maila gainditu izana akreditatzeko ontzat emango dira HABEren egiaztagiriak, IVAPEk (edota Eusko Jaurlaritzaren beste edozein erakundek), Helduen Hezkuntzaren sareko zentroek, INAPEk (zein Nafarroako beste edozein erakundek) edo Euskararen Bulegoak bermatutako ziurtagiriak, Hizkuntza Eskola Ofizialetako egiaztagiriak, edota unibertsitate publiko zein pribatuetako hizkuntza-zerbitzuek bermatutako agiriak.**

**Ontzat emango dira, halaber, Akademia edo ikastegi pribatuetako agiriak ere ontzat emango dira, baldin eta hizkuntza-akademiak EAQUALS, EALTA edo beste kalitate agentzia baten bermea badute, eta ikasleen maila egiaztatzeko ebaluazio-sistema arautu bat erabiltzen badute. Azken baldintza hau egiaztatzeko, akademiak edo ikastegiak egindako ziurtagiria aurkeztu beharko dute eskatzaileek. Azkenik, ontzat emango dira aprobetxamendu-agiriak ere, baldin eta ikastaroak gizarte-arloko erakundeek eskainiak izan badira (GKEak, auzo-elkarteak, gizarte-integratioko zentroak, eta abar).**

## **2. ESKATZAILEAK:**

**Deialdia argitaratzen denean lanean diharduten UPV/EHUko irakasleek eta ikertzaileek eskatu ahal izango dituzte diru laguntza hauek, prestatze bidean dauden doktoregaiek bame, baldin eta UPV/EHUko irakasle edo ikertzaile-lanetan aritu baziren euskara-ikastaroak iraun zuen epealdian.**

**Eskatzaileak A1-A2-B1 edota B2 ikastaroa egiteagatik diru-laguntza eskatzen badu, EAetik kanpo errolatuta dagoen ziurtagiria aurkeztu behar du.**

## **3. ESKARIAK:**

**a) Eskaria egiteko, deialdi honi atxikitako inprimakia erabili behar da.**

**b) Inprimakiarekin batera, dokumentazio hau erantsiko da:**

**B.1. Aprobetxamendu-agiria. Honako zehaztasunak jasoko dira:**

- **Ikastaro-emailea (euskaltegia, hizkuntza-eskola..)**
- **NIF:**
- **Ikastaro-mota (aurrez aurrekoa/jardun bikoja/autoikaskuntza/barnetegia)**
- **Ikastaro homologatua (BAI/EZ)**
- **Matrikularen zenbatekoa:**
- **Ikastaroaren hasiera-data:**
- **Ikastaroaren amaiera-data:**
- **Ordutegia:**
- **Iraupena (ordu-kopurua):**
- **Asistentzia-datuak (%)**
- **Ikastaroaren maila (C1.1/C1.2/C2.1/C2.2)**
- **Maila gainditua: BAI/EZ**

**Matrikularen kontzeptuan eskola-saioei dagokien zenbatekoa baino ez da hartuko kontuan, Kanpoan gertuko dira joan-etorriak, ostatu-gastuak, materialak edo software lizentziak.**

**B.2. Ordainagiria.**

- **Euskaltegietako matrikularen kasuan, jatorrizko ordainagiria aurkeztu beharko da. Kutxazain automatikoan egindako ordainketek euskaltegiaren edo enpresaren zigilua izan behar dute.**
- **Hizkuntza-akademien kasuan, jatorrizko faktura aurkeztu beharko da.**
- **Euskaltegietatik kanpoko autoikaskuntzako programen kasuan, kontratua aurkeztuko da fakturarekin batera.**

**B.3. Zinpeko aitortpena: bertan deklaratu da bestelako diru-laguntzarik jaso den, eta, hala bada, diru-laguntzaren emailea eta zenbatekoa.**

**B.4 Erraldotze-agiria: EAEn ez badago errolatuta.**



c) Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 14.e) artikuluan adierazitakoaren arabera, eta bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin (erabaki horrek onartu egiten ditu interesatuak UPV/EHUrekiko harreman elektronikoetan identifikatzeko eta sinadura elektronikoa erabiltzeko jarraibideak, bai eta erakunde horretan lanean ari diren pertsonak identifikatu eta sinadura elektronikoa erabiltzekoak ere), eskaera aurkeztu behar da UPV/EHUko erregistro elektronikoaren bitartez: <https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico>. Bertan sartuta, "Jasotzailea" atalean Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetza" aukeratu behar da. Horretarako, identifikazio elektronikorako sistema hauetakoren bat erabili behar da: Izenperen ziurtagiri digitala, UPV/EHUn txartela (Izenpe), NAN elektronikoa, edo Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES).

Era berean, eskaera aurkeztu ahal izango da sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoan eta, ohiz kanpoko kasuetan, erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUn bulegoetan, aurrez aurre. Erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUn bulegoetan aurkezten diren eskaerak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira administrazio espediente elektronikoan sartzeko, eta jatorrizkoak interesdunari itzuliko zaizkio, interesduna funtzionarioaren aurrean identifikatu eta horrela jarduteko adostasun espresua adierazi ondoren, bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin. Erabaki horrek onartu egiten ditu gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaietan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea UPV/EHUn; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa.

d) **2021. urtean epe bakarria** irekiko da eskariak egiteko: **2021eko urriaren 28tik azaroaren 12ra. Ez da onartuko epez kanpo aurkeztutako eskaririk.**

e) Eskariak aurkezteko epea amaitutakoan, jasotako eskarien zerrenda argitaratuko da Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordetzaren iragarki-tauletan nahiz webgunean. Zerrenda horretan adieraziko da, halakorik egonez gero, eskariek zuzenketaren bat behar duten edo dokumentazioa falta den. Eskatzaileek **10 laneguneko epea** izango dute falta den dokumentazioa aurkeztu edo akatsak zuzentzeko. Epearen barruan zuzenketak egin ezean edota dokumentazioa aurkeztu ezean, eskatzaileek atzera egin dutela ulertuko da. Onartutakoen eta baztertutako eskarien behin betiko zerrenda Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordetzaren iragarki-tauletan nahiz webgunean argitaratuko da.

#### **4. DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA:**

Irizpide hauek aplikatuko dira zehazteko eskatzaile bakoitzari dagokion zenbatekoa:

- a) Eskatzaileei, gehienez ere, matrikularen % 75ari dagokion zenbatekoaren adinako diru-laguntza emango zaie.
- b) Eskatzaileek, gehienez ere, 750 euro jasoko dituzte C1 mailako ikastaroen matrikulagatik eta 900 euro C2 mailako ikastaroengatik. Ikasturte berean bi mailak egin dituztenek, gehienez ere, 1650 euro jasoko dituzte.
- c) Aurreko deialdietan maila bereko ikastaroak egiteko diru-laguntza jaso bazen, zenbateko hori kontuan hartuko da 2020ko deialdian jaso beharrekoa kalkulatzeko orduan. Deialdi guztiak kontuan hartuta, ezin izango dira orotara gainditu b) epigrafean zehaztutako kopuruak.



- d) Iraupen luzeko autoikaskuntza-planen kasuan, epealdiari dagokion zenbatekoaren kalkulu proportzionala egingo da, eskatzaileari 2020an zer kopuru dagokion zehazteko orduan.
  - e) Iraupen luzeko autoikaskuntza-planen kasuan, bakarrik kontuan hartuko dira deialdi honetan C1 eta C2 maileri dagokien epealdia.
  - f) Iraupen luzeko autoikaskuntza ikastaroen kasuan, kontratu beragatik aurreko deialdietan jasotako diru-laguntza kontuan hartuko da deialdi honetan eskatzaileari dagokion zenbatekoa zehazteko orduan. Deialdi guztiak kontuan hartuta, ezin izango dira orotara gainditu b) epigrafean zehaztutako kopuruak
  - g) Ez dira kontuan hartuko honako gastuak: materialak, software-lizentziak, finantzaketa-kasuak (ikastaroaren zenbatekoa epeka ordaintzen den kasuetan), eta, oro har, eskola-saioen kostuaz bestelako kontzepturik.
  - h) Barnetegien kasuan, berriz, kostu osoa hartuko da kontuan: ikastaroa + ostataratzea.
- Eskarien kopuruak hala behartuko balu, diru-laguntzen zenbatekoa murriztuko litzateke dagoen aurrekontura egokituz.

## **5. ESKATZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK**

Eskatzaileek baldintza hauek bete beharko dituzte diru-laguntzak eskuratu ahal izateko.

- a) Eskatzaileak aurreko ataleko irizpideen arabera legokiokeen zenbatekoaren % 100 jasoko du (gehienezko kopuruak gainditu gabe), bi baldintza hauek betez gero: a) % 80tik gorako asistentzia; b) maila gainditu izana.
- b) Eskatzaileak aurreko ataleko irizpideen arabera legokiokeen zenbatekoaren % 50 jasoko du (gehienezko kopuruaren % 50 gainditu gabe), baldin eta: a) asistentzia % 60-80 bitartekoa izan bada, edota b) asistentzia % 80tik gorakoa izan arren, ez badu maila gainditu.
- c) Irizpide hauek modu independentean aplikatuko dira, eskatzaileak maila ezberdineko bi ikastaro egin dituenean
- d) Autoikaskuntzako programen kasuan, kontratuan zehaztutako baldintzak hartuko dira erreferentzia gisa irizpide hauek aplikatzeko orduan.
- e) Ez dute diru-laguntzarik jasoko maila gainditu ez, eta asistentzia-irizpidea betetzen ez duten eskatzaileek.

Deialdi honetako diru laguntza hauek bateragarriak dira beste erakunde publiko edo pribatuk xede berberaz emandakoekin. Alabaina, halakorik jaso bada, hala adierazi behar da eskariarekin batera aurkeztu beharreko zinpeko aitortpenean. Beste iturrietatik jasotako diru-laguntzaren zenbatekoa kontuan hartuko da deialdi honetan jasotzekoa den kopuruaren kalkulua egitean. Orotara, eskatzaileak ez du jasoko deialdi honetan aurreikusitako gehienezko kopurua baino laguntza handiagoa, jaso dituen laguntza guztiak kontuan hartuta.

## **6. ERABAKIA ETA ORDAINKETA:**

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordeak erabakia emango du, eta onartutako eta ezetsitako eskaeren zerrenda zein atzera egindako eskaerena argitaratuko ditu. Interesdunek horren berri jasoko dute Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordetzaren iragarki-tauletan eta webgunean argitaratuko den iragarkiaren bidez. Behin betiko erabakiak amaitzen du bide administratiboa, eta haren kontra aukerako berraztertze-errekurtsoa ezarri ahal izango da, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordearen aurrean, erabakia argitaratzen denetik hilabeteko epean. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere ezarri ahal izango da, dagokion administrazioarekiko auzi-jurisdikzioan, erabakia argitaratzen denetik bi hilabeteko epean.



Onartutako diru-laguntzaren zenbatekoa erabaki ondoren, epe bakarrean egingo da diru laguntzen ordainketa.

#### **7. INTERPRETAZIOA:**

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordeak baimena du deialdi honetako arauak argitzeko, bai eta horiek ezartzeko beharrezko beste arau batzuk emateko ere.

#### **8. ERREKURTSOAK:**

Deialdiak administrazio-bidea amaitzen du, eta haren kontra aukerako berraztertze-errekurtoa ezarri ahal izango da, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordearen aurrean, hilabeteko epean, deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Administrazioarekiko auzi-errekurtoa ere ezarri ahal izango da, zuzenean, dagokion administrazioarekiko auzi-jurisdikzioan, berdin zenbatutako bi hilabeteko epean.

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordetza